

## STEILASBERRI honetan gaurko Mahai Sektorearen berri emango dizuegu.

Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak ikastetxeak modu partzalean irekitzeko plan bat landu du deseskalatzearen II. Faserako, ekainaren 1etik aurrera aplikatuko dena. Plan honek Osasun Departamentuko eta Osasun Ministerioaren oniritzia jaso beharko du aurrera eraman ahal izateko.

Hainbat egoeretan dauden ikastexeen irekiera aurreikusten da:


- Batxilergoko 2. mailako ikasleentzako errefortzu klasea, derrigorrezkoak izango ez direnak.
- Azterketak modu boluntario batean eta sarrera probak egitea:
  - HEO.
  - Helduen ikasketak.
  - Zubiarte Euskaltegia.
  - Kontserbatorioak.
  - Iruñeko eta Korellako Arte Eskolak.
  - Lanbide Heziketako zikloetarako sarrera probak.
  - Kirol Ikasketetarako probak.
  - Heldutasun probak.

Informazio gehiago [hemen](#).

STEILAS sindikatuan datorren ikasturte hasieraren inguruan Hezkuntza Departamentuak mantentzen duen isiltasunak kezkatzen gaitu. Beharrezkoa da Nafarroako Hezkuntza Publikoa behar adinako bitarteko material eta espazialekin eta, giza baliabideekin hornitzea 2020/2021 ikasturtea bermekin hasteko eta, era berean, larrialdietako plan bat sortzea Koronavirusak handitu duen arrakala sozialari eta segregazioari aurre egiteko.

Ordezkapenak betetzeko erabiltzen den irizpide gabezia salatzen dugu, baina batez ere, oso behar gutxi ordezkatu dela. Egiten ez den ordezkapen bakoitza murrizketa da; Hezkuntza Ituneko bete gabeko neurri bakoitza murrizketa da; eta murrizketa da plantillak osatzerakoan, Pedagogia Terapeutikoan eta Entzumenean eta Hizkuntzan gertatu den ordu murrizketa.

## PUBLIKOA DEFENDATU



**Ez erabili pandemia Hezkuntzan murrizketak egiteko**